



SUKALKI TXAPELKETAREN ARAUDIA

1. Parte hartuko duten taldeek adin nagusiko bi beharko dute izan, eta txapelketan izena eman beharko dute. Pertsona bakoitza inprimaki bakar batean ager daiteke. Baten baino gehiagotan agertzen bada, besterik gabe ezabatuko da.
2. Izena emateko epea: irailaren 17tik 10:00etatik hasita irailaren 24ra 14:00etara izango da, www.durango.eus/SF2025 udal webaren bitartez.
3. Plaza esleitzeko, zozketa egingo da irailaren 26an, Intxaurrondon. Emaiza www.durango.eus helbidean jarriko da.
4. Plazaren berrespena eta lekuaren aukeraketa, irailaren 29, 30 eta urriaren 1ean egin beharko da, 5 ^o ordainduta; bestela, plaza galduko da. INTXAURRONDON (Laubideta kalea 6A) Durango. Horario: 09:30 - 14:30.
5. Antolakuntzak parte hartzaileen eskura jarriko ditu ondorengo elementuak: mahaiak, aulkiak, ura hartzeko guneak eta zabor-ontziak. Honetaz gain, lapikoen identifikazioaz arduratuko da epaimahaian aurkezteko.
6. Lehiaketa gunea 8:30etan irekiko da, parte hartzen dutenek materialak sartzeko eta dagokien tokian kokatzeko. Ezin da aparkatu lehiaketa gune inguruko alboetan.
7. Parte hartzaileei lapikoak identifikatzeko etiketak emango zaizkie.
8. **Parte-hartzaileen ardura izango da onartzen diren osagai guztiak ekartzea:** Behei edo txahal okela, ezinbestekoa: hegalekoa, zankarroia edo lepoaldekoa haragia, patatak, piperrak, piper txorizeroak, kipulak, ilarrak, azenarioak, tomateak, berakatzak, oliba olio edo txerri koipea, gatza eta ardoa. Sukalkia, gutxienez, 8 pertsonentzako prestatu beharko da.
9. **Parte-hartzaileek ondorengoak ekarri beharko dituzte:** sukalde, butano botila, lapikoa edo rondoia eta sukalde lanetarako behar diren tresna guztiak.
10. Sukalki osoa lehiaketaren gunean egin behar da. Presiozko lapikoak eta sukalde arinekoak erabiltzea ez dira onartzen. Suetarako hiruankak erabiltzea gomendatzen da, egurrezko mahaiak izarra ez daitezen. Erregailuaren goma iraungita ez dagoela egiaztatu beharko da.
11. Txapelketan parte hartzen duten lapikoak 13:30etan aurkeztu beharko dira antolakuntzara; berriz itzuliko dira epaimahaiak sariak ematen dituenean. Lapikoa utzi eta batu pertsona batek egingo du agiria erakutsiz.
12. Lehiakideren batek ez badu araudian zehaztutako guztia betetzen, besterik gabe, txapelketatik kanpo geratuko da.
13. Epaimahaikideak adituak dira sukaldaritza kontuetan eta sukalkia prestatzen. Epaimahaiaren inpartzialtasuna ziurtatuko da lapiko bakoitzari kanpoaldean zenbaki bat jarritz.
14. Epaimahaiaren erabakia ezingo da aldatu. Sari banaketa Landako Gunean izango da epaimahaiak sariak erabaki ondoren.
15. Parte hartzen duten taldeak, aldeztu aurretik izena ematerakoan horrela eskatu badute, bazkaltzera gera daitezke; 8 pertsonentzako mahaia eta aulkiak izango dituzte. Bazkariaren antolakuntza eta behar dituzten gainontzekoak taldearen kontura joango da. Ekitaldia 19:00etan bukatuko da; ondoren, batuketa-lanei ekingo zaizkie.
16. Sortu daitezken zalantzak, ezusteko edo oinarri hauen interpretazioak, antolakuntzak ondoen deritzon moduan erabakitzeko eskubidea izango du, baita ere lehiaketa honetan egin behar diren aldaketak egiteko funtzionamendu egokia bermatzeko.

PARTIAIDE GUZTIEN LAGUNTZA ESKATZEN DUGU EKITALDIAZ GOZATZEKO

TXAPELKETA EGUNA: 2025eko urriaren 11a, larunbata
Tokia: LANDAKO GUNEA